

**Zapelatz arrunta**

**Buteo buteo**  
Harraparirik arruntena da. Lurraldekoa, basokoa, leku irekietan ehizatzen du. Askotan kable eta zutoinetan pausatzen da.

ES *Busardo ratonero*  
EN *Common Buzzard*

UOMAMEUAIUAA ★★★★★




**Mirotz urdina**

**Circus pygargus**  
Udako, nekazaritza-gune irekiei lotuta. Batez ere zereal-soroetan umatzen da. Itxura arina, estilizatu.

ES *Aguilucho cenizo*  
EN *Montagu's Harrier*

UOMAMEUAIUAA ★★




**Gabirai arrunta**

**Accipiter nisus**  
Baso-harraparia, sedentarioa, hegala motz eta biribilduak ditu. Hegazti txikiak ehizatzen ditu basoko adar artean, eta horregatik, normalean, zaila izaten da ikustea.

ES *Gavilán común* EN *Eurasian Sparrowhawk*

UOMAMEUAIUAA ★★★★★




**Belatz gorria**

**Falco tinnunculus**  
Txikia, nekazaritzako eremuei lotua, eta sarritan ukiuluetan umatzen da. Harrobi eta harkaitzetan ohiko ugalketa. Sarritan zernitzen da.

ES *Cernícalo vulgar*  
EN *Common Kestrel*

UOMAMEUAIUAA ★★★★★



**Miru beltza**  
*Milvus migrans*

Miru iluna, isatsa miru gorria bezain urkilatua ez duena. Udakoa, negua Saharaz hegoaldeko Afrikan igarotzen du. Askotan, hazkuntza koloniala.

ES *Milano negro* EN *Black Kite*

★★★★ UOMAMEUAIUAA





**Miru gorria** *Milvus milvus*

Nahasezina, bere itsas urkilatu eta gorrikkagatik. Sedentarioa, askoz ohikoagoa neguan Europa erdialdeko hegaztien etorreragatik.

ES *Milano real* EN *Red Kite*

★★ UOMAMEUAIUAA



**Zingira-mirotza** *Circus aeruginosus*

Hezeguneei lotua. Normalean lezkadietan umatzen da. V formako hegada bereizgarria, ehizatzen duen ur-masen gainean. Sexu desberdinak.

ES *Aguilucho lagunero occidental*  
EN *Western Marsh Harrier*

★★ UOMAMEUAIUAA




**Belatz handia** *Falco peregrinus*

Belatz gorria baino handiagoa eta itxura sendoagoa, trinkoa. Hegaztiak hegan ehizatzen ditu. Harkaitzetan umatzen da, baina gero eta sarriagoa da antzinako eraikinetan, hala nola katedraletan.

ES *Halcón peregrino* EN *Peregrine Falcon*

★★★★ UOMAMEUAIUAA



LANDA GIDA TXIKIA

Toni Llobet · Juan Arizaga, Olatz Aizpurua eta Maite Laso

# Euskal Herrian ezagutu beharreko 111 hegazti arrunt





# Euskal Herriko hegaztiak

Ikuspuntu biogeografikotik oso interesgarria den bidegurutzan dago Euskal Herria; izan ere, kilometro karratu gutxi batzuetan eskualde atlantikoa, mediterraneoa eta alpetarra elkartzen dira (Euskal Mendietako eta Mendebaldeko Pirinioetako kota altuenetan), lurraldearen zati bat Kantauriko urez bustita dagoela ahaztu gabe. Hori dela eta, ornitologia- aberastasun handia dago. Kosta-lerrotik hasi eta itsasoaren mailatik 2.000 m baino gehiagora dauden gailurretaraino, tartean, mota askotako basoak, landazabalak eta pseudo-estepak zeharkatuz.

Mota hauetako hegaztiak ezagutzeko, mendira joatea gomendatzen dugu, isiltasunean, goizean goiz, prismatikoeekin eta espezieak identifikatzen ikasi, bai ikusmenagatik, bai kantuengatik.

Gida honetan Euskal Herriko espezie adierazgarrienak biltzen dira. Oro har, hegazti arruntak eta behatzen errazak direnak aurkituko ditugu. Orri bakoitzean hamar bat espezie agertzen dira eskalan, testu labur batekin eta informazio osagarria duten ikonoekin, errazago aurkitu eta identifikatzeko. Bildumako beste titulu batzuetan beste espezie asko sakonago aztertuko dira: basokoak, mendikoak, nekazaritza eta estepakoak eta itsasokoak esaterako.



Testu eta espezie selekzioa: Juan Arizaga, Olatz Aizpurua eta Maite Laso  
 Ilustrazioak: Toni Llobet  
 Diseinu grafikoa: Lluc Julià eta Toni Llobet  
 Maketazioa: Toni Llobet eta Clara Cortadelles  
 Itzulpena: Olatz Aizpurua eta Maite Laso  
 Lege-gordailua: DL T 292-2024

**FENOLOGIA** Espeziearen presentzia urtean zehar

U Presentzia maximoa U Presentzia txikiagoa E Ez dago

**UGARITASUNA** Bere habitatean eta presentzia maximoa garaian

★★★★ Oso arrunta ★★★ Arrunta ★★ Eskasa ★ Arraroa

## HÁBITATS

- Itsasoa**, itsasertzetik itsaso zabalera
- Kostalde harritsuak**, itsaslabarrekin
- Hondartzak** eta kostaldeko hezeguneak
- Hezeguneak**, paduretatik urmael eta mendiko ibaietaraino
- Herriak eta hiriak**, eta askotariko giro urbanizatuak
- Laborantza**, baratzak eta zurezkoak —fruta-arbolak, olibadiak, mahastiak...
- Estepak**, zereal-laboreak eta lehorreko larreak
- Belardiak**, larre hezeak, sega-belardiak eta alpetarrak
- Sastrakadiak**, bai mediterranearrak, bai atlantikoko eta mendiko larreak
- Konifero-basoak**, hainbat pinuren eta izeien basoak
- Baso hostozabalak**, artadiak, hariztiak...
- Harkaitzak**, labarrak, harrobiak, hartxingadiak...

## GARAIERA MAILA

- Barnealdeko eta itsasertzeko zelaiak, behe-mendia
- Erdi-mailako mendia
- Goi-mendia

**SEXUA** ♂ Arra ♀ Emea

**ESKALA** Espezie arruntak, erreferentziatzeko proportzioa



Argitaratzailea:

**Lectio Ediciones**

Kolaboratzailea(k):

*Toni Llobet*

Thema: WNCB / 1DSE-ES-Q / 1DSE-ES-R

**aranzadi**  
zientzia elkarte



## URETAKO HEGAZTIAK

### Antzara hankagorritzta

*Anser anser*

Tamaina handia, hezegune handiei lotua. Batez ere migrazioan ikusten da, udazkena zein udaberrian. Hegan egiten du V formazioan.

ES *Ánsar común* EN *Greylag Goose*

★★ **UOMAMEUAIUAA**



### Basahatea

*Anas platyrhynchos*

Oso ahate ugaria, mota guztietako uretan agertzen da, estuarioetatik, putzu eta ibai txikietaraino. Ondo jasaten du gizakiaren presentzia. Ispilu urdina bi sexuetan.

EU *Ánade azulón* EN *Mallard*

★★★★★ **UOMAMEUAIUAA**



### Ahate mokozabala

*Spatula clypeata*  
Mokoa koilara moduan duen azaleko ahatea, adierazgarria. Hegal-ispilu berdea, arran zein emean.

ES *Cuchara común* EN *Northern Shoveler*

★★★ **UOMAMEUAIUAA**

### Murgilari arrunta

*Aythya ferina*

Ahate urpekaria, neguan batez ere arrunta, ur zabaleko eremuatan. Ugaltzaile urria.

ES *Porrón europeo* EN *Common Pochard*

★★★★★ **UOMAMEUAIUAA**



### Murgilari mottoduna

*Aythya fuligula*

Ahate urpekaria, txikia. Neguan nahiko arrunta da, baina oso urria ugaltzaile gisa (Salburuan bakarrik aipatua).

ES *Porrón moñudo* EN *Tufted Duck*

★★★★★ **UOMAMEUAIUAA**



### Murgil handia

*Podiceps cristatus*

Nahasezina, eztei-lumajearekin batez ere. Ur gezatan umatzen da, baina neguan estuarioetan ere agertzen da. Urpekaria.

EU *Somormujo lavanco*

EN *Great Crested Grebe*

★★★★★ **UOMAMEUAIUAA**



### Txilinporta txikia

*Tachybaptus ruficollis*

Txikia, ur bilduen eremuatan harrapakin txikien bila urperatzen da. 'bip-bip-bibibi' luze eta altua egiten du.

ES *Zampullín común* EN *Little Grebe*

★★★★★ **UOMAMEUAIUAA**



### Uroilo arrunta

*Gallinula chloropus*

Lurraldekoa, mota guztietako hezeguneetan agertzen da, betiere erriberako landaredi zingiratsua badago, eta bertan egiten du habia.

Sarritan, uraren ertzetatik ibiltzen da.

ES *Gallineta común* EN *Common Moorhen*

★★★★ **UOMAMEUAIUAA**